

# HAPO Hondarribia Martxan!


Herritarren partaidetzari buruzko jardunaldiak  
Jornada de participación ciudadana



**Zer muga edo eskumen ditu HAPOak? Noraino heldu  
gaitezke?**

**¿Qué límites o competencias tiene el PGOU? ¿Hasta  
dónde podemos llegar?**


1. Hiri-plangintza.
2. Antolamendu estrukturala eta antolamendu xehatua.
3. HAPO baten parte ez diren gaiak.
4. Gai horiek HAPO baten parte izan daitezke.



Hirigintza-plangintza edo hiri-plangintza lurzoruaren erabilera antolatzeke eta eraldatzeko edo, hala badagokio, kontserbatzeko baldintzak arautzeko idazten diren tresna tekniko eta arau-emaileen multzoa da.

Hainbat plangintza-tresnaren bidez egiten da:

- Plan orokorrak (egiturazko antolamenduko tresna).
- Plan Partzialak eta Plan Bereziak (antolamendu xehatuko tresnak).



## EGITURAZKO ANTOLAMENTUA

Udalerriko lurzoru-eremu edo -zona bakoitzaren ezaugarri nagusiak definitzen ditu:

- Lurzoruaren okupazioa.
- Non eraiki daitekeen eta non ez. (Sailkapena).
- Erabilera nagusiak: bizitegitarako, jarduera ekonomikoetarako (Kalifikazioa).
- Hiriaren garapen-faseak.
- Non kokatzen diren azpiegitura eta ekipamendu nagusiak (ospitaleak, errepideak, parkeak).

## ANTOLAMENDU XEHATUA

Eraiki daitekeenaren ezaugarri orokorrak zehazten ditu.

- Espazio libreen eta urbanizazioen ezaugarri nagusiak definitzen ditu.
- Eraikinen ezaugarri nagusiak definitzen ditu: forma, altuera, solairuen kopurua, aparkalekuen gutxieneko kopurua.
- Antolamendutik kanpokotzat jotzen diren eraikinak adierazten ditu (eraitsi beharrekoak).

**Plangintzaren azken fasea da.**

61. artikulua. Plan orokorraren eduki substantiboa.

Hiri-antolamenduko plan orokorrak honako antolamendu-zehaztapen hauek ezartzen ditu:

A) Gutxienez, udal-mugarte osoaren egiturazko antolamendua eta plan orokorrak hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartzen duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua.

B) Aukera gisa, lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta plan orokorrak hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartzen ez duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua; bi kasuetan, antolamendu xehatuko plangintzaren bidez ordenatu ahal izango da.

2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa

Espazioa urbanizatzeko obren proiektuak.

Espaloiak handitzea, beheratutako pasabideak, etab.

Farolak edo iturriak, banku gehiago edo bide publikoan pixatokiak instalatzea.

Trafikoa edo zirkulazioa antolatzea.

Garraio-sistema antolatzea: ibilbideak, autobus-geltokiak.

Zamalanetarako eremuak erreserbatzea.

Bide publikoan aparkalekua arautzea.

TAO guneak ezartzea.

Oinezkoentzako pasabide berriak ezartzea.

Terrazak eta espazio publikoa okupatzeko baimenak.

Bide-sarearen hierarkizazioa:

- Kaleen tratamendua mugikortasun-politika baten esparruan.
- Hiri-bideak.
- Peatonalizazioak.
- Hiri-ibilbideak hobetzea.

# BAI

Mugikortasuna hobetzea:

- Beharrak adierazteko aukera eta
- Hirigintza-karga gisa betearaztea.



**Mila esker!  
Gracias!**